

Saharako herriek jasan duten erbestealdia eta borroka, Ekain Albiteren lehen film labur profesionalan

Orain arte zumaiarra amateur gisa aritu da, baina oraingoan 'Haizearen egia' izeneko film labur profesionala egin du



FOTOLIA

PAUL PICADO

Jueves, 17 septiembre 2020, 21:15



Ekain Albite zumaiarrak bere lehen lan profesionala estreinatu zuen joan den astean Zumaiaiko Kultur Etxean. Orain arte amateur gisa aritu da Albite, baina oraingoan, **'Haizearen egia' izeneko film laburrekin**, esan bezala, lan profesionala burutu du.

Film labur horretan, **Saharan jaio zen baina Euskal Herrian bizi den Tahar gaztearen istorioa kontatzen du**. Bere aita gaixotzen da eta hilzorian dagoenez, bere etxera itzuli behar izaten du. Bere familia Tindufeko errefuxiatuen eremuan bizi da, eta Taharek oroitzapenean eta kontraesanei aurre egin beharko die.

Albitek hainbat film labur prestatu ditu eta txikitatik izan du zinemarekiko jakin-mina. Hori dela eta, zinema-zuzendaritza ikasten hasi zen, zuzendaritza espezializazioan, Bartzelonako Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya eskolan (ESCAC), eta gaur egun, horiek ikasketa horiek amaitzen ari da.

Film laburra 2019. urtearen hasieran grabatu zuen, eta bere helburua Saharako herriek azken hamarkadatan jasan duten erbestealdia eta borroka beste modu batera kontatzea izan zen. **Bere asmoa bertako istorio bat kontatzen duen fikziozko film labur bat egitea** zen, baina ohiko dokumentaletatik ihes eginez.

Filma Maluta Films ekoiztetxeak ekoiztu du, eta Zumaiaiko eta Zestoak Udalen, Euskal Fondoaren, Daralhi eta Wanda elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du. Grabazio prozesua eta gero antolatzen zen mahai-inguruan Ekain Albitek berak, eta erakunde horien guztien ordezkariak, hala nola Ritxi Lizartzak (Maluta Films), Samuel Ruizek (Daralhi) eta Iñaki Ostolazak (Zumaiaiko alkatea) parte hartu zuten.

LO + LEÍDO

El Correo / Zurekin

Top 50

- 1 «Euskaraz egin behar zaio aurre mundu mailako krisiari»
- 2 «Hizkuntzek balio izan behar dute lana egiteko, dirua irabazteko eta bizitza ulertu eta adierazteko»
- 3 Landako Gunea prest dago Durangoko Azokako 55. edizioari hasiera emateko
- 4 «Madrilen lagunekin euskara eta euskal abestiak partekatzen ditut beti»
- 5 Zergatik ez da euskara hizkuntza sexista? Pilar Kaltzada horri buruz ariko da, gaur, Leioan

